

**2025. urteko diru-laguntzen deialdia**

**Eremua: GENERO INDARKERIA ERROTIK ATERATZEA  
ETA BERDINTASUNA**

**Diru-laguntzen lerroa: SEXU ETA GENERO  
ANIZTASUNAZ SENTSIBILIZATZEKO ETA LGTBIQ+  
PERTSONEN KONTRAKO INDARKERIA  
PREBENITZEKO EKIMENAK**

## **1. artikulua. Esparrua eta xedea**

Bilboko Udaleko Berdintasuna eta Jaietako Sailak –berdintasunaren eta genero-indarkeria desagerraraztearen arloaren barruan– dirulaguntzen lerro honetarako deialdia egin du: "Sexu- eta genero-dibertsitatearen inguruan sentsibilizatzeko eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria prebenitzeko ekimenak". Haren helburua da 2025an Bilboko udalerrian zenbait jarduera egitea, dibertsitatearen errespetuan sentsibilizazioa bultzatzeko, eta LGTBIQ+ pertsonen duintasuna eta eskubideak defendatzeko, tratu berdina eta bazterkeriarik gabekoa bermatzeko, eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria prebenitzea Bilboko udalerrian. Horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren bigarren helburua lortzen lagunduko du, hau da, Bilbon elkartasunaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, genero-indarkeria desagerraraztearen, lankidetzaren eta kulturarteko eta belaunaldien arteko bizikidetzaren balioak garatzen lagunduko du.

## **2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

**3.1** LGTBIQ+ elkarteek eta irabaziak egiteko asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Elkarrearen estatutuetan beren-beregi jasota edukitzea, haren xede, helburu edo jardueren artean, aniztasunaren errespetua bermatzea edo eragitea eta LGTBIQ+ pertsonen duintasuna, eskubideak, tratu berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzea, eta, orobat, LGTBIQ+ pertsonen kontrako indarkeriaren prebentzioa.

- Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Bilbon edukitzea laguntza hauek eskatu baino bi urte lehenagotik, gutxienez, eta agiri bidez egiaztatzea hori.
- Aktiboak izatea Bilboko udalerrian deialdi honen arloari dagozkion jarduerak sustatzen. Hala, horri dagokionez, adituko da udalerrian presentzia aktiboa dutela noiz ere atzenengo bi urteetan jarduerak gauzatu baitituzte diruz laguntzen diren gaien inguruan (deialdi honen 6. artikuluan datoz definituta).

**3.2** Elkarte eskatzaileek Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan (Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaietarako Saila) inskribatuta eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte (Campo Volantin pasalekua, 1bis, 5.solairua).

**3.3** Entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, diru-laguntza eman, betebeharra onartu eta ordaintzen den unerako.

## **4. artikulua. Aurrekontu-kredituak**

---

**4.1** Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu kodearen 2025/00126 eta 2025 ekitaldirako onartutako 2025 14000 4 00126 00 2025 gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 15.000 euro da.

**4.2** Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

## **5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura**

---

**5.1** Norgehiagoka izango da diruz lagundu daitekeen kontzeptuari aplikatuko zaion araubidea:

- Norgehiagokako araubidean, dirulaguntzak emateko, alderatu egiten dira aurkeztutako eskabideak, haien artean lehentasun hurrenkera bat ezartzearen 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, eta dirulaguntza ematen zaie baloraziorik handiena lortu duten eskaerei, inolaz ere gainditu gabe deialdian ezarritako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa.
- Baldin eta dirulaguntza-lerro honetan onartutako dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, txikiagoa bada deialdirako izendatutako zenbatekoa baino, soberakina berdintasunaren eta genero indarkeria amaiaztearen arloko beste hiru dirulaguntza-lerroei gehituko zaie.

**5.2** Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa 2.000 euro da.

**5.3** Norgehiagokako araubidean, behin 50 puntuko gutxienekora helduta, emango den dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzeko, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ehuneko bat aplikatuko da; taula honetan zehazten da nola:

| <b>Programari emandako puntuak</b> | <b>Emango zaion dirulaguntzaren %a.</b> |
|------------------------------------|-----------------------------------------|
| 81 puntutik gora                   | Eskatutakoaren % 100.                   |
| 61 eta 80 puntu bitartean.         | Eskatutakoaren % 90.                    |
| 50 eta 60 bitartean                | Eskatutakoaren % 80.                    |

## **6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak**

**6.1** Adituko da dirulaguntza-lerro honetan diruz laguntzeko kontzeptua dela honako programa, proiektu eta ekintza hauek gauzatzea:

- Sexu- eta genero-aniztasuna bermatu, eragin eta defendatzearen alde egiten dutenak eta gizarteko arlo batzuetan eta besteetan LGTBIQ+ pertsonen tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egiten dutenak.
- Xedetzat dutenak LGTBIQ+ pertsonen kontrako indarkeriaren prebentzioa gizarteko arlo batzuetan eta besteetan.

**6.2** Diruz laguntzeko jarduerak izango dira dirulaguntza-lerro honen xedea eta diruz laguntzeko kontzeptuen xedea bilatzen duten ekimenak edo xede horiekin bat datozen ekimenak. Era berean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udal ordenantzan ezarritakoa bete behar dute, aintzat hartuz genero ikuspegia eta bermatuz ezen diruz laguntzekoa den proiektu edo jarduerak emango dituen mezuek eta irudiek kolektiboetan dagoen aniztasuna irudikatuko dutela.

- Hitzaldiak, informazio-mintzaldiak, mintegiak edo gai baten inguruko kanpainak antolatzea.
- Ikerketa, zabalkunde, ikusgai jartze eta ohartarazte jarduerak eta/edo komunitatea mobilizatzekoak.
- Errespetuzko harremanak sustatzeko jarduerak, balio aldaketa eta gizarte transformazioa eragiten dutenak auzitan jarri sakon errotuta dauden diskriminaziozko arau sozialak.
- Data adierazgarrien inguruko sentsibilizazio ekintzak, hala nola: Trans ikusgaitasunaren eguna, martxoaren 31; ikusgaitasun lesbikoaren eguna, apirilaren 26a; homofobiaren, transfobiaren eta bifobiaren kontrako nazioarteko eguna, maiatzaren 17a; harrotasunaren eguna, ekainaren 28a; Bisexualitatearen Nazioarteko Eguna, irailaren 23a; transexualitatea despatologizatzearen aldeko eguna, besteak beste.
- Beste ekimen batzuk, deialdiaren helburuarekin bat datozenak.

**6.3** Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, zalantzarik gabe zerikusia dutenak jarduera horren gauzatzearekin, 2025. ekitaldian gauzatzen badira, urte horretako abenduaren 31 baino lehen.

- Gai suntsigarrietan egiten diren gastuak: moldiztegia, esku-orriak, publizitatea eta beste gastu kontsumigarri batzuk, diruz laguntzekoa den jarduerarekin zuzeneko zerikusia dutenak.
- Kontratazioen ondoriozko gastuak (proiektua zuzenean egikaritzeko profesionalak, soldatapekoak eta beste batzuk, enpresak nahiz elkarteak). Kontratazio-gastuak diruz lagunduko badira, kontratatzen diren pertsona eta entitateen dedikazio eskusiboa izan beharko da proiektua egikaritzea, eta ez dira diruz lagunduko entitatearen koordinazio- eta/edo administrazio gastuak. Era berean, xehakatu eta zehaztu egin beharko da, aurkeztutako proiektuaren aurrekontuan, zenbat ordu iraun duen dena delako jarduerak (ikastaro, tailer edo antzekoak), eta zein den dagokion orduko zenbatekoa (zergak barne direla)
- Haurtzaindegi gastuak, baldin-eta diruz lagundutako ekintzetara bertaratutako pertsonen famili kontziliazioa erraztearekin lotuta badaude, ekintza horiek irauten duten bitartean.
- Entitate onuradunek Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntza erabiltzeari buruz dauzkaten betebeharren ondoriozko gastuak.

#### 6.4. Ez dira diruz laguntzekoak izango:

Ez dira diruz laguntzekoak izango LGTBQ+ kolektiboetako pertsonen edozein eratako arreta ematea lehenengo xedetzat duten proiektu, programa eta jarduerak.

## 7. artikulua.- Eskabideak

---

### 7.1 Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2025ko otsailaren 21ean amaituko da.

### 7.2 Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren garedentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### 7.3 Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan lege ezarritako gainerako lekuetan.

**7.4** Erakundearen legeko ordezkari edo legeko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 eta 27.2 artikuluek ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

**7.5** Diru-laguntza eskariek ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

**7.6** Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziazioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

**7.7** Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki iritzitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

**7.8** Programa bakoitza bakarrik aurkeztu beharko da diru-laguntzaren udal arlo batera.

**7.9** Elkarte eskatzaile bakoitzak programa edo proiektu bakarra aurkeztu dezake diru-laguntzaren arlo honetarako.

## **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

---

**8.1** Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, I. ERANSKIN deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.2** Eskaria **udal erregistroan** aurkeztzen bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Eskabide horria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera Urtekoetan xehatutako ereduaren arabera.

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, I. ERANSKIN deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.3** Eskaera sinatzen duenak baimentzen dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, ez baimentzeko aukera izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

**8.4** Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

**8.5** Entitateek 3.1. artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte

**8.6** Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak ez zuzenduz gero eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

## **9. artikulua. Balorazio-irizpideak**

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

**A) Programa baloratzeko irizpideak .....GUZTIRA 85 puntu**

a) Programaren interesa. .... Gehienez 48 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Berdintasun Sailaren ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin bat etortzea; koherentzia izatea deialdiaren helburuarekin; premiak aztertzea eta testuinguruan sartzea; ekintzaren justifikazioa; parte-hartzaileen kopurua sexuaren eta adinaren arabera bananduta; hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista, kolektibo guztien dibertsitatea erakusteko; programaren kontsolidazioa (aurrez garatutako programa).

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Helburuak, ekintzak, kronograma eta metodologia zehaztea; ebaluazio-sistema; proiektuarekiko koherentzia; komunikazioa eta zabalkundea (irisgarria izatea, eta kontuan hartzea kolektibo batzuk eta besteak, bai edukiari dagokionez, bai formatuari dagokionez...)

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Eraginkortasuna baliabideak esleitzean, programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa

- d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna, osasuna ..... Gehienez 17 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

✓ **Berdintasuna:.....Gehienez 5 puntu**

Baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kiroletakoak, denbora, aisia, parte-hartze soziala eta politikoa, enplegua, osasuna...) eskuratzeko eta kontrolatzeko emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasunak kontuan hartzen dituzten programak, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria errotik kentzeko helburu, ekintza eta/edo neurri zehatzak jasotzen dituztenak. Sarean lan egitea edo beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea; elkarteko kideak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaroetara joatea.

✓ **Euskera:.....Gehienez 4 puntu**

Herritar elebidunentzako euskarazko jarduerak dituzten programak

✓ **Kulturartekotasuna:.....Gehienez 2 puntu**

Kultura-aniztasuna eta lurraldeko migrazioei eta babeslekuei bereziki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek aitortu eta ikusaraztera, berdintasuna sustatzera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako helburu eta ekintzekin, bai eta aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa sustatzera ere.

✓ **Gazteak:.....Gehienez 2 puntu**

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak dituzten programak.

✓ **Ezgaitasuna:.....Gehienez 2 puntu**

Ezgaitasun fisiko, sentsozial eta intelektualak duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduketak edo zerbitzuak biltzen dituzten programak.

✓ **Osasuna:.....Gehienez 2 puntu**

Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasun-arloko desberdintasunak azpimarratuz.

**B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 15 puntu**

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan, hainbat motatako udal-kontseiluetan, auzo sareetan, federazioetan eta beste batzuetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna eta erakundean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak.

## **10. artikulua. Izapideak eta balorazioa**

**10.1** Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Berdintasun, Bizikidetzatza, Lankidetzatza eta Immigrazio Saileko Berdintasuna Sustatzeko Sekzioari atxikitako langileek izango dute

**10.2** Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritakoari jarraituz osatu eta hauek izango dira:

Presidentea: Berdintasuna eta Jaietako Saileko Zinegotzia.

Idazkaria: Berdintasuna eta Jaietako Saileko Zuzendaria.

Kideak: Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Teknikari Aholkularia.

**10.3** Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

**10.4** Instrukzio-organismoak, espediente eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriz antolatzea**

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

- A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

- B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

- a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.
- b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

## **12. artikulua. Ebazpena**

**12.1** Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

**12.2** Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

**12.3** Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

### **13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea**

**13.1** Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziario gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

**13.2** Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

**13.3** Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

### **14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea**

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziarioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen **dituzten** kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan. Hala ere, hartzaileen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskara hutsean egin ahal izango dira.

Era berean, aurkezten den dokumentazioak hizkera eta irudi ez-sexistak eduki beharko ditu betiere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikulua eta Bilboko Udalaren Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako Ordenantzaren 15. artikulua kontuan izanik

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

## **15. artikulua. Azpikontratazioa**

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute. Era berean kontuan izan beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak sartutako betebeharrak.

## **16. artikulua. Programa aldatzea**

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariak eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoko aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

## **17. artikulua. Uko egitea**

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## **18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea**

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

## **19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea**

---

### **19.1 Justifikatzeko epea**

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

### **19.2 Justifikatu beharreko zenbatekoa**

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

### **19.3 Justifikatzeko sistema**

**19.3.1** Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du. Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Eta derrigor adierazi behar da:
  - Zenbat pertsona izan diren onuradun (sexuaren arabera eta kolektiboaren arabera).
  - Zenbat jarduera egin diren guztira eta zein hizkuntzatan (euskara, gaztelania, elebiduna eta beste hizkuntza batzuk)
  - Beste datu batzuk, baloratutako eta puntuatutako zeharkako politikei buruzkoak (berdintasuna, euskara, gazteria, kulturartekotasuna, osasuna).
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa betearazteari dagozkion ordainagirien zerrenda, emandako ereduaren arabera, non honako hauek zehaztuko baitira: zein kontzepturi dagokion gastua, ordainagiria jaulki duen entitatea, entitate horren IFK, fakturan agertzen den kontzeptua, noiz egin den izan den eta zenbatekoa eurotan.
- d) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:
  - Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagiriekin, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.

- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagiriekin justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak (sortutakoa guztira) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak (LIZ, langileen izenen zerrenda) aurkeztu behar dira .

- Zeharkako kostuei dagokionez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

#### **19.4 Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.**

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

## **20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.